

...eta

Kitto!

934 zkio.
2015-VI-12



Kirola Euskaraz Bizi



Teilatuak Fatxadak Sukaldeak
Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34
F. Calbetón, 4 - 3. solairua jorgevega.eibar@gmail.com





*Ondo zapaldu
hobeto bizi*

%50 *deskontua*
oinatzaren azterketa
biomekanikoan
EKAINAREN 30ERA ARTE

IKIROPODOLOGIA

IHAURRAK

IAZTERKETAK

**I OINATZAREN AZTERKETA
BIOMEKANIKOA**

I OIN DIABETIKOAREN UNITATEA

IPODOLOGIA GERIATRIKOA

I PODOACTIVA BERMEA

**I EZAGUT ITZAZU GURE
BARNE ZOLAK**

Podoactivak nazioartean patentatutako 3DScanSport teknologia dauka, eta horri esker, erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitutako Podoactiva barne-zola pertsonalizatuak egin daitezke.

Podoactiva bezeroen artean daude Futbol Liga Profesionaleko lehen mailako taldeak, hala nola: Real Madrid-Sanitas, Atl. Madrid, Liverpool...



POLICLINICA GIPUZKOA



943 25 61 00

Ibarkurutze Kalea, 2, Eibar



www.policlinicagipuzkoa.com

ASTEAN ESANAK

"Londresen bi giza klase geratzen dira bakarrik: aberatsak eta haien zerbitzariak. Klase ertainik apenas geratzen den, hirian bizitzeko ez zaie-eta iristen."

(HANIF KUREISHI, IDAZLEA)

"Gizarteak uste du aingerutxo asexuatuk garena, eta batere desiragarriak ez garena indarrean dauden edertasunen kanonen arabera. Askotan umemokoak bagina bezala tratatzen gaituzte. Eta umeez ez dute larrua jotzen. Zer naiz, 26 urteko haurra?"

(TELMO ESNAI, GARUN PARASIDUN GAZTEA)

"Orokorrean, haurren zaintzari emana dagoen aitak badu ukitu positiboa. Baina, egunez egunekoan, eta batik bat lan merkatuari lotuta, ez da serioa haurrak zaintzeko lana uztea"

(ITZIAR ALONSO-ARBIOLI, EHUKO PSIKOLOGOA)

"Umeez etxean erdaraz egin arren kanpoan euskaraz egiten badute nahikoa dela iruditzen zaie gurasoei, bereziki eremu oso euskaldunetan"

(MALORES ETXEBERRIA, EUSKARA TEKNIKARIA)

"Polioa edo differia ikusten ez diren gaixotasunak direnez, errespetua galdu zaie. Eta legez ezin da inor behartu txertoa hartzera, epidemiarik ez bada behintzat"

(PEDRO GORROTKATEGI, PEDIATRA)

"Internet askoz ere fisikoagoa da bertual bano. Eta sarea ez da ez garbia ezta ekologikoa ere, oso kutsagarria baizik. Ez dago airean, lurretik eta itsasotik doa eta azpiegitura gehiegi behar ditu"

(FERNANDO BELZUNCE, ZUTABEGILEA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

KOKUAK JAN.- Zerenak (egurra) jan. Gaztelarazko 'carcomer'. "Ez bada sasoian botatzen, edo gaizki zaintzen bada, errezagua dok kokuak jatia gero; eta orduan ez jok ezertarako balio".
KOLERA.- Hatsa, usain txarra. "Ha zan koleria, dana harrez beteta!".

eskutitzak

URKIN KIROLA ETA ELKARLANA UZTARTUZ

Urkiko jaietan protagonista bereziak izan ditugu aurtien ere: **Atzegiko** lagunak (Gipuzkoako Adimen Urritasuna duten lagunuen elkarteak). Mendiko martxan, Eibarko Txolarterekin batera, ibilbidearen zati bat osatu zuten aldarte onean, horrela gizarteke partaide direla erakutsiz.

Lerro hauen bitartez hainbat laguni eta elkarteei eskerrak eman nahi dizkiegu Urkiko jaietan gazteentzat eskubaloia, futbola, esku pilota, "Txiki-krosa" eta "Galdaramiñoko mendi lasterketa"-n lagundu diguten guztiak: Urkiko Jai Batzordea, Eibarko Udala (alkatetza,

udaltzaingoa), Eibarko Kirol Patronatoa, Eibarko Klub Deportiboa (mendia eta atletismo sailak), DYA, Nemark, Cepa, Eskarne jatetxea, Flori-Yeyi ileapaindegia, Salaberria bitxidenda, Mara-Mara mendiko kiroldegia, Mugi masaje zerbitzua, Kaiku, Eroski, Coca-Cola, Kirolprobak, SER, Arrate Irratia, Berria eta ...**eta kitto!** astekaria. Eta, batez ere, boluntarioei, euren gabe ez baitzen posible izango kirol ekintza horiek antolatzea. Horien artean, San Salvadorreko Juliori eta Uzartzako "Gure ametsa" txabolakoei eskerrak eman nahi genizkieke.

GALDARAMIÑO ML - URKIKO JAI BATZORDEA

HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN URRAKETA OSASUNGINTZAN

Osasun alorrean hizkuntza-eskubideen urraketa etengabea da. Egoera hori okertu egiten da nabarmen hainbat momentutan, zerbitzuen berrantolaketak edota langileen ordezkapenak euskaraz kontutan hartu gabe egiten direnean, adibidez. Uda garaian arazo horiek handitu egiten dira. Adibidez, iazko udan langile erdaldunekin elebidunak ordezkatu zituzten hainbat kasu ezagutu genituen. Aurtien, egoera hori errepikatu ez dadin, prebentzio lana egin dezaten eskatu diegu Osakidetzari zein Osasunbideari hainbat eragile: Kontseiluaren baitan biltzen den osasungintza lantaldeko (Behatokia, EHE, OEE, Topagunea eta UEMA) kideekin batera, LAB sindikatuek, Medikuntzako Asanbladak eta Berdin elkar- teak. Herritarrek osasun asistentzia euskaraz jasotzerako orduan dituzten arazoak jakinarazteko bidea

erazteko asmoz formularioa sortu dugu, www.euskarabiznahidut.eus webgunean.

Herritar eta langileei dei egin nahi diegu euren osasun asistentzia euskaraz jaso edota lanean euskaraz aritzeko zailtasun edo oztopoak baldin badituzte, euren kasua jakinarazi dezaten. Horretarako gure webgunean formulario bat betetzeko lotura izango dute, informazioa guri helarazteko, eta behar diren bitartekoak har ditzagun. Formulario horrekin osasun zerbitzuetako langile zein erabiltzaileei ordezkapen masiboen garaiaren euren kezak egiteko bidea erraztu nahi diegu. Izan ere, ohikoa denez, hauen kudeaketa Hizkuntza Eskubideen Behatokiak egingo du, horrela dagokion kasuetan. Gure helburua osasun etxean gertatzen diren egoeren berri modu azkarrean jasotzea da.

UEMA (UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA)

Erredakzioaren Oharra: Datorren barixakuko (hilaren 19ko) alearen ondoren, hurrengo Sanjuanetako argazkiak bakarrik jasotzen dituen BIXAMONA izango da (astelehenean, hilaren 29an). Kontutan hartu, beraz, zorian-agurrak eta bestelako informazioa kaleratzeke hurrengo alea aste horretako barixakukoa (uztailaren 2koa) izango duzuela.



Euskara Elkarteak

ARGITARAZTZAILEA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekariaren E-MAILak: erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus / publizitatea@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILak: elkarteak@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Sheila Lopez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.
PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** J.A. Mogel Ikastola
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



Gipuzkoa
BERRIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Isekin alkartiaren jardunaldixa

Bixarko Untzagan jardunaldi solidarixua antolatu dabe Isekin alkartekuak eta, horretarako, egun osorako ekitaldixak preparamu dituzte: 11.30xetan ekingo detse "Soñadores de Esperanza" ipuin solidarixuak saltzari eta ordu erdi geruago txosnia zabalduko dabe; 12.30xetan ipuin-kontalari saiaua eskinduko dau Marca Radio-ko Borja Rodriguezek; eta 13.15ian malabar-ikuskitzuna egingo dau Rufus Haundixak; 15.00etan udaletxeko arkupietan herri-bazarria (paellia, gisaua eta limoi-sorbetia) egingo da Gurbil tabernakuen eskutik eta

azken momentuan baten bat animau ezkerro, bixar be eukiko dau txartela erosteko aukeria (10 euro); arratsaldeko 17.00etatik aurrera atzera be ipuiñak saltzen hasiko dira eta txosnia zabalduko dabe; 18.30xetan Ttatt gimnasioko Montxo Kinaren eskutik Wu Shu erakustaldixa egingo da eta 20.00etan "Jukebox" dantza ikuskizuna, Bira Dantza-ren eskutik; eta jaixari agur esan baiño lehen, egunian zihar euro batian salgai egongo diran errifen zozketia egingo dabe Eibar foball taldeko jokalarixak siñatutako kamisetak oparitzeko.



Aurreko zapatuan Torbio Etxebarria kalia ipiñittako mahaixetan ekimenari buruzko informaziñua emon zeben. LEIRE ITURBE

Ekaiñaren 21erako sarrerak salgai

Aurreko astian egindakua bixar arratsaldian atzera be kalera urtengo dira Eibarko Gure Esku Dago taldekuak, ekaiñaren 21ian erabagitzeko eskubidiaren alde hiriburuetan egingo diran ekitaldixetara juateko sarrerak, "Erabakia ehunten" ekimeneko oihalak eta bestelako materiala saltzera. Eibartarroi Donostian egingo diran ekitaldixetan parte hartzia dagokigu. Egun osorako programia osatu dabe, baiña horren barruan ekitaldi bi

izango dira berezixenak: 12.00etatik 12.30xetara oihal-kataia egingo da Urumeako sei zubixetan eta 17.30xetan ekitaldi naguxia egingo da Anoetan. Donostia jua nahi dabene dako sarrerak salgai dagoz taberna hõnetan: Kultu, Guridi, Zazpi, Gure-Leku, Txurru, Depor, Hirurok, Belek eta Nuevo. Helduen sarrerak 10 euro balixo dau eta 14 urtetik beherakuenak, barriz, 5 euro. Informaziño gehixagorako gure eskudago.eus webgunian begiratu.



Agur pelukerixari

Urkizun dagan Luci illeapaindegixak atiak betirako itxiko ditzu bixar, ugazaberi, Carmen eta Luci ahizterri jubilatze sasoia ailellgau jakue eta. Bixak emon dabe bizitza osua pelukerixan biharrian eta, etapa barriari ekin aurretik, eskerrak emon nahi detsez urte hõnetan guztietan eurengan konfidantzia ipiñi daben bezerueri, "eureri eskerrak beti aurrera egittia ahal dogulako".

Sanjuanetan EUSKERAZ ESKATU!

Ostalarixak Berbetan programiak "Euskeraz primeran" kanpaiñarekin aurrera segitzen dau eta oinguan bezeruen txandia izango da: ...eta kitto! Euskara Elkarteak abiarazittako kanpaiñarekin bat egittia erabagi ebenak tabernan "Euskeraz primeran" diñuan pegatiña ipiñi eta lehen berbia, hau da, agurra behintzat euskeraz egitteko konpromisua hartu eben. Baiña geuk euskeraz egitten detsagu gero? Izan be, eskatzerakuan lehen berbia euskeraz egittia geure esku bada, baiña batzuetan, ohittura kontuarengaittik edo, gure lehen asmua euskeraz eskatzia bada be, momentua ailellatzian gazteletaria etortzen jaku ahora.

Baiña aurtengo sanjuanetan atxakixa horrek ez desku balixo izango, Euskeraz Primeran!-ekin bat egin eben 75 tabernetako kamareruak EUSKERAZ ESKATU diñuen pin edo txapak eruangotzera.



Kamareruak "EUSKERAZ ESKATU" diñuen txapak eruangotzera



ko. Asmua bezeruak euskeraz eskatzera animatzia da eta, horretarako, hillaren 15 eta 16xa bittartian tabernetan txapak banatuko ditzue eta eta tabernarixeri gixtixenez 19tik 27ra bittartian ipintzeko eskatuko detse. Horrekin batera, ahal daben neurrixan euskal musikia ipintzeko be eskatuko detse. Edozelan be, kanpaiñiako arduradunak jende guztia euskeraz bizitzera eta jaixetaz euskeraz gozatzera animau nahi dabe.



Geltoki Market azokia Estaziñuan

Bixarko Geltoki Market azokaren ediziño barrixa antolatu dabe Estaziñuan: 10.30xetatik 15.00ak bitartian era guztietako gauzak salgai eukiko dittuen 70 bat saltoki egongo dira zabalik eta, horrekin batera, hainbat jarduera preparau dittue: umiendako ikuskizuna, Juanma Cano DJ-xaren saiua, futbolin eta igel-toka txapelketia...

Errebalgo eraikiña eta kultur ekipamendua enkantera

Udalak enkantera etara dittu Errebalgo funziño anitzeko eraikiña eta kultur ekipamendua egitteko biharrak, 8.276.542 euroko aurrekontuarekin (BEZa barne) eta eskintzak aurkezteko epia uztaillaren 14an amaittuko da. Deialdiko baldintzarorriretan jasotakuaren arabera, biharrak amaitzeko epia 30 hillebetekua izango da eta, udalak irailleko lehene gunetan obria adjudikatzia aurreikusten dau. Beraz, ekipamendua 2018ko udaberrirako amaittuta egotia espero dabe. Enkantian parte hartzeko interesa daken enpresak Eibarko udalaren webgunian (www.eibar.eus) topauko dabez baldintza administratibuak jasotzen dittuen orrixak, proiektua eta bestelako dokumentaziña, "Kontratzailearen Profila" atalian.



autuan

EMAKUMIEN AZTARNAK

Datorren eguaztenian (17xan), 11.30xetan "Emakumeen aztarnak Eibarko industrializazio-prozesuan" proiektuko saio barrixa hartuko dau Untzagako jubilau etxiak. Datorren astekuan aurreko saiuetan landutako gaixeri errepasua egingo detse: fabriketan andrak egitten zittuen biharrak, andrazkuen lanbidiak, etxe-barruko zein kanpoko ekitaldixak, baserrietako bizimodua... Datorren astekua oporren aurretik egingo daben azken saiua izango da.

UDALBATZA OSATZEKO PLENUA

Maiatzaren 24ko hauteskundiak eta gero, Udal Gobernu osatzeko pleno berezixa egingo dabe bixar, 12.00xetan. Plenuan egingo dan bozketa bittartez aukeratuko dittue hurrengo legegintzaldirako alkatea eta ziñegotzixak, Hortaz, ezusterik ezian, Miguel de los Toyosek alkate kargua berritsiko dau bixar.





Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

<ol style="list-style-type: none"> 1) Kardiologia 2) Zirugia 3) Dermatologia 4) Dietetika / Nutrizioa 5) Análisi Klinikoak 6) Ortodontzia 7) Otorrinolaringologia 8) Pediatria 9) Psikiatria 10) Neurologia 	<ol style="list-style-type: none"> 11) Barne Medikuntza 12) Radiologia 13) Urologia 14) Traumatologia 15) Koloproktologia 16) Erizaintza 17) Zoru pelbikoaren errehabilitazioa 18) Foto-depilazio Unitatea
---	--



Dorelin Castillo Estrella
GERENTEA

Gourmet Dore Likordegia

Ostalaritzako profesionaleri, partikularrei eta elkarte gastronomikoei saltzen espezializatuak

Bidebarrieta, 5
943 201 840 / 618 219 227
dcelicoreriasgourmet@gmail.com



asteko
108.000
datua

euro erabili ditue 2015
San Juan jaixetarako
programia osatzeko;
hillaren 3tik 28xa bittartian,
herriko 34 alkarteren
parte-hartzia eukiko daben
96 jarduera egingo dira.

Anbiente haundiko jaixak Urkin

Ondo baiño hobeto pasau eben as-
teburua Urki aldian, auzoko jaixak
ospatzeko jai batzordekuak antola-
tu zittuen ekitaldixeri esker. Bari-
xakuan hasi eta domeka illuntzera
bittartian denetarik euki eben: mu-
sikia, umiendako jolasak, kirol prob-
ak, auzokeri omenaldixak... Ur-
tero lez, zapatu arratsaldian Ta-
rumba taldekuak girotuta ospatu
eben langostino eta txanpañaren
jaixak jende mordua alkartu eban
eta urtetik urtera gero eta arrakasta
haundixagua eukitzen daben pae-
lla lehiaketan 36 bikotek hartu eben parte, danendako su nahikua ez egotia gaittik izena emon
ebenetako batzuk kanpua laga eta gero.



Gaztienak be gustora hartu zebeu parte kalejiran. LEIRE ITURBE

Batzokiko ikurriña lapurtu dabe

EAJ-PNVko Uri Batzarrak ohar baten bittartez sa-
latu dabenez, Eibarko Batzokixan, Labaderokua
kalera (Isasi eta Ego Gain kalien bittartera) emo-
ten daben leihuan eguan ikurriña desagertu da:
"Aurreko astelehenian ikurriñari heltzen zetsen
sokak ebagitta topau genduaz eta ez eguan
ikurriñarik". Batzoki barrixa 2009. urtian zabaldu
ebenetik euki dabe ikurriña leihuan eta pasau-
takua gogor gaitzetsi dabe: "Herri honetan jen-
diak ikurriñari errespetu haundixagua zetsala
pentsatzen genduan".

Debarrena Ekinean arrakastatsua



Aurreko barixaku eta zapa-
tuan Untzagako karpak
hartu eban Debarrena
Ekinean azokia martxa
onian egin zan eta egun
bixetan jende asko ibilli
zan atzera eta aurrera.
Azokaren harira barixaku
arratsaldian Roberto Lo-
pez Etxeberria diseñado-
riak emondako hitzaldixak
be udaletzeko pleno are-
tua betetzia lortu eban.



Kantu-kalejira jendetsua

Aurreko asteburuan, zapatuan, ikasturteko azken kantu-
kalejira egin eben Kaleetan Kantuz abesbatzak eta Musika Es-
kolako trikitilarixak. Oporren aurretik egindako saiua urtian
zihar egitten dittuenak baiño berezixagua izan zan eta, Ei-
barko taldiarekin batera, Otxandixo, Arretxabaleta eta Arra-
sateko taldietakuak be ibilli ziran herriko kalietan kantuan.
Bazkalostian Eibarko taldeko nagusixena dan Angeleri ome-
naldixa egitteko aprobetxau eben eguna.

VICENTE GARITAGOITIA URIBELARREA



*Kandela bat moduan
poliki-poliki itzaltzen joan zara,
baina gure bihotzetan beti
pizturik iraungo duzu.*

ZURE FAMILIA





XABI SOLANO (Esne Beltza):

Esne Beltza taldea erraz identifikatzen da euskal musikaren arloan. Hainbat urtetako ibilbidean hizki larriz idazteko izena hartu du panorama horretan eta hip-hop, reggae, soul, rock, folk, kumbia... eta hainbat estiloko musikei trikitiaren laguntza ekarri dio 2008tik. "Made in Euskal Herria" kaleratu zuten urte hartan eta hari jarraitu zioten "Esne zopak", beste tokiren artean Jamaikan eta Beiruten grabatutako CD eta DVD-a (2009), "Noa" (2010), "Freedom 3 kolpetan" (2011) eta "Gora" (2013). Azken disko honetako abestiak nabarmenduko dira bihar gauean Untzagan, 23.00etan, baina taldeak egindako ibilbide osoaren azarnak dastatzeko aukera ere eskainiko digu. Xabi Solano abeslari eta trikitiariekin izan gara taldekoen asmoen berri izateko. Gogotsu datoz Eibarrera.

"Gogo biziz dihardugu 'Gorago Tour' biraren izenaren esanahiari jarraituz"

- Zelako kontzertua eskaintzeko asmoa duzue? Azken diskoko abestiekin zatozte?

Denetarik, gure disko guztietako lanekin etorriko gara, nahasketa bat egiteko. Gainera, bi taldekide berri sartu dira taldean eta horiek egokitze fasean dihardugu: Pini abeslariak Gorka Suairen tokia hartu du eta tronpetarekin Aitor Valcarlos dator Arkaitz Sistiaga ordezkatuz.

- Aurretik Eibarren jo duzue noizbaiten? Gogoratzen duzu non?

Bai, bai, hor egonda gaude. 2009an zela uste dut. Eta orduan ere herriko plazan izan ginen, hor, Untzagan.

- Gorago Tour bira Ondarrun hasi zenuten apirilaren 24an. Zelan joan da orain artekoa?

Oso ondo. Japonian ere egon gara, hirugarren aldiz, eta sei kontzertu eman genituen ekialdeko herrialde horretan. Asko maite gaituzte eta hango jaialdietan jende mordok gure abestiak euskeraz abesten ditu. Alemaniara ere joango gara abuztuan, beste lau kontzertu emateko. Bartzelona ere bira ba-

ruan dago, Euskal Herriko eta inguruko beste herri askorekin batera.

- Eibarren jo eta hurrengo egunean Araba Euskaraz-era, ezta?

Bai, hilaren 14an hitzordua dugu Mendizorrotzan. Gustatzen zaizkigu horrelako ekitaldiak: aurretik ere Kilometroak-en abestia egin genuen eta izan gara Donostiako Piratak, Gazteherria, Udalbiltza, presoan sostengurako elkarteek... antolatutako hainbat kontzertu eskaintzen.

- Bazabiltzate hurrengo diskorik prestatzen? Noizko kalean?

Badihardugu, bai. Noiz kaleratuko dugun ezin dugu aurreratu, baina hemendik urtebetera baino lehen aurkezteko asmoa dugu. Dena dela, zein unetan izango den ez da erraza orain esatea.

- Taldeak urte hauetan zelako bilakaera izan duen eskatuko banizu...

Lagunartean hasitako ekimena izan zen gurea eta, espero ez genuen indarra hartu badu ere, gustora jarraitzen dugu egiten du-

gun musikarekin. Ez gara baztertu hasierako bidetik... Egia da zeozer ikasi ere ikasi dugula eta gure azken lanak hasieran egiten genuenetik ezberdinak direla... baina inork ezin du esan ez garela beti Esne Beltza izan. Hori da gure ezaugarri nagusia!

Zelan ikusten duzu euskal musikaren gaur egungo egoera?

Nahiko ondo. Gero eta talde gehiago dago, estilo desberdinetakoak gainera, eta goruntz egin duela esango nuke. Pegarik ipintzekotan, esan didazun "euskal" horri buruz... talde gazteen artean euskara baztertu eta letretan ingelesera errazegi jotzen dela esango nuke.

- Zer espero dezakete zuen jarraitzaileek biharko kontzertuan? Ezustekorik?

Betiko moduan, eman dezakegun onena. Gogo handiz gatoz, biraren izenak dioen moduan "Gorago" egiteko asmoarekin. Guztioz gozatzeko ordu eta erdiko apostua izango da gurea. Ezustekoak? Horrelakoak ezin dira kontatu.

FRANCISCA GARITAGOITIA ARRUTAIN



Mila esker guregatik egin duzun guztiagatik eta gure oroimenean, bereziki, horrelako momentu politik uzteagatik.

Agur, amama Pakita. Muxu handi bat!



+ OSASZUN GODA

Dentistak



Arat
Hartz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU
INTEGRALA

Hortz-osasuneko
profesional taldea
zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta
kolektibo handiekin
itundutako zentroa...



TORIBIO ETXEBARRIA, 4-1. Esk. Tel: 943 20 18 51

RPS: 53/13



bista eder
clínica dental - hartz klinika

Asko dira
gure hartz-kliniketara
etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82



Monica Martín Fonseca
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

calbetón hagin klinika

Tel. / Faxes: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

info@clinicacalbeton.com



Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. esk. Tfnoa: 943 20 72 17



GASTESI
Hortz-Klinika
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskua 943 70 00 90

RPS 04/02



IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicalrazabal.com



hartz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia
ume eta
helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkiizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.marladoloresolaizola.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA



- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA
ESTETIKOA

KIRURGIA
ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

**HEMEN ZURE
TOKIA izan
nahi baduzu ...
... deitu
943-206776
telefono
zenbakira**

Fisioterapia



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
ARRAGUETA, 20
TLF: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA



FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia.
OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustin, 2-4 - M lokala Tel. 622 14 58 58

Okulistikak



Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartera
943 20 19 82



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologí Klinikia

Presbiziaren kirurgia.

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)



ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak



AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com

Coro Ortiz de Urbina
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maialen Hernandez
PSIKOPEDAGOGOA

- Lengoia trastornoak
- Hiperaktibitatea
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Ikasketa teknikak

Tel. 605 75 75 06

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

..... (Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA



Arrate Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

Bidebarrieta, 27-B (3. atea)
943 20 22 66

Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk.....EIBAR
Zuberoa, 4ZARAUTZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tef. 943206823 eta 686859023

Gauza desberdinak egiteko grina eta ikasteko gogoia ez dago adinarekin lotuta. Adin jakin batera ailegatzean, eta laneko obligazioak amaitzen direnean edota seme-alaben ardura ez dagoenean, denbora gehiago izaten da gauzak egiteko, zalantzarik gabe. Honetaz gain, kontuan izan behar dugu jende askok ez duela ikasteko aukerarik izan bere bizitzan zehar; horregatik, adin jakin horretara ailegatzeko direnean, ilusio handiarekin hasten dira gauza berriak ikasten.



Esperientzia Eskolako 11. promozioa Eva Perez de Albeniz koordinatzailearekin (argazkian eskuman). Urte amaierako proiektuari "Teknoforum" deitu diote. Smartphonak eta tabletak erabiltzen ikasi dute. Irailetik aurrera bilerak egiten eta gai hau lantzen jarraituko dute. Gainera, interesa duten guztiei erakusteko prest daude. ANA AIZPURUA

GAUZA BERRIAK egiteko eta ikasteko SASOIA

Debabarreneko Esperientzia Eskolak esperientziak elkartrukatzeko eta intereseko hainbat alorretan formatzeko aukera eskaintzen du. Esperientzia Eskola zer den hobeto ulertzeko bertako koordinatzailearekin egon gara. **EVA PEREZ DE ALBENIZ** psikologoa da eta gerontologian masterra dauka. Esperientzia Eskola koordinatzaileaz gain, ikasgai batzuk ere ematen ditu bertan. Harreman oso estua izaten du ikasleekin eta oso ondo ezaugutzen ditu. Evak esan digunez, "55 urtetik aurrera matrikulatu zaitezke eskolan. Batezbesteko adina 65 urtekoa da, baina askoz nagusiagoak ere badaude". Klaseak astean hiru aldiz izaten dira: astearte, asteazken eta ostegunean, 09,30etik 12,30-

era. Klaseak bereziak izaten dira, ikasteko gogoia daukatelako eta partehartzea oso handia delako". Klaseak Untzaga Jubilatutxan izaten dira eta ez da beharrezkoa aurrez titulu edo formakuntza akademikorik izatea.

Aurtun 11. promozioa pasatu da eskolatik eta jorratu dituzten gaietako batzuk hauek izan dira: Gipuzkoako historia; inmigrazioari buruzko mitoak apurtzen; zahartze aktiboa; bizitza-testamentua; komunikazio-gaitasunen trebezia, artearen historia; filosofia; etika eta balioak; gizarte-proiektuak; zine-foruma; nutrizioa; erlijioa historian zehar; kontsumitzaileen eskubideak; inteligentzia emozionala; ofimatika eta internet; astronomia; musikaren historia; ingurugiroa eta garapen jasangarria; gizarte parte-hartzea; literatura; antzerki-foruma; ekonomia; sexualitatea; zoru pelbikoa eta gimnasia hipopresiboa; transgenikoak eta ama zelulak...

Ikastaro hauek adituek eskaintzen dituzte, iraupen desberdina izaten duten ponentzien bitartez. "Klaseak oso atseginak izaten dira: adituek esperientzia handia dau-

kate horrelako ponentziak ematen eta, momentu guztietan, ikasleen parte-hartzea bultzatzen dute. Ikasleak oso eroso sentitzen dira. Gainera, ez da inolako presiorik egiten: ez da azterketarik egiten", azaldu digu Evak.

Ikasturte urrian hasi eta ekainean amaitzen da. Amaieran, gizarte ekintzako proiektua garatzen da, boluntariotzaren alorrean. Proiektua lantzeko profesional baten laguntza izaten dute.

Aurtengo ikasturtean 18 ikasle egon dira. Gazteenak 57 urte ditu eta zaharrena, 82. Gehienak emakumeak eta eibartarrak, baina badira Elgoibar, Ermua eta Mallabikoak ere. Ikasturte amaierako proiektuan telefono mugikorrek eta tabletak erabiltzen ikasi dute; whatsapp, telegram. GPS, bluetooth... "Teknoforum" izena jarri diote proiektuari, eta, urritik aurrera, IKASTENen agendaren barruan Teknoforum batzordeak aurrera jarraituko du. Gaia lantzen jarraituko dute eta ikasitakoa beste batzuei erakutsiko diete. Beraz, esperientzia eskolatik urtero irtetzen den promozio bakoitzak aukera izaten du IKASTEN elkartean barruan gauzak egiten eta ikasten jarraitzeko. Ikasleek azaldu digutenez, "gutako batzuk telefono mugikorrik ere ez genuen. Azkenengo hilabeteetan telefonoa eta tableta erabiltzen ikasten egon gara. Kontua da jende gazteak ez duela pa-



zientziarik guri horrelako gauzak erakusteko, eta gure artean bata besteari erakusten ibiltzen gara". Gainera, profesionalen laguntza izan dute.

Ikasleek ikasturte osoaren balorazio positiboa egiten dute. "Asko ikasi dugu, gai asko jorratu ditugu eta jendea hona etortzeko animatu nahi dugu. Jubilatzen garenean sarritan ez dakigu zer egin eta nola planifikatu gure denbora libre. Gainera, inportanteena hemen sortzen diren harremanak dira. Gauza asko partekatu ditugu, danetik pasatu zaigu urtean zehar: bati ama hil zitzaion, besteari senarra, beste bati ahizpa, biloben jaiotzak ere izan ditugu...". Esperientzia Eskolak urtebete irauten du, baina irailetik aurrera elkartzen jarraituko dute "Teknoforum" batzordearen baitan.

Datorren ikasturterako izena emateko epea uztaile eta iraila bitartean egongo da zabalik, eta Debabarreneko Udaletan egin ahal izago da. Urte osorako matrikulazioak 200 euro balio du. Esperientzia Eskolak Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren dirulaguntzaz gain, aurten Eibarko Udalarena ere jaso du.



Bata besteari erakusten gauza asko ikasten dituzte Esperientzia Eskolakoek. ANA AIZPURUA

ANA MARI ALBERDI,
Ikasten elkarteko presidentea:

"Bizimodua hobeto eramaten saiatzen gara. Ikasteaz gain, besteei erakutsi egiten diegu"



Esperientzia Eskola Debegesaren eskutik sortu zen, Europa mailako programa baten barruan. Eskolari jarraipena emateko helburuarekin, horren gestioaz arduratuko zen elkarteak sortu zuten lehenengo promozioiko ikasle ohiek 2005. urtean: **Ikasten**. Beraz, Ikasten esperientzia eskolako ikasle-ohien elkarteak dela esango genuke.

Gaur egun 207 bazkide daude IKASTENen: 152 emakumezko eta 55 gizonzko. Guztiak 55 urtetik gorakoak. Urtean zehar ekitaldi pila bat antolatzen dute. Esate baterako, astearte eta ostegunetako hitzaldietan era askotako gaiak jorratzen dituzte. Otsailetik IKASTENeko presidente den Ana Mari Alberdik azaldu digunez, "50-60 lagun inguru biltzen dira hitzaldietan. Parte-hartzea izugarria da eta hizlariak eskertu egiten dute azaltzen dugun interesa eta parte-hartzea. Hizlari ezagunak eta, ahal dela, ingurukoak ekartzen saiatzen gara. Esate baterako orain dela gutxi laga gaituen Javier Gorosabel eibartar astronomoa edo Garbiñe Biurrun epaile ezaguna. Jendea oso gustora etortzen da". Ekitaldi irekiak izaten dira, ez da beharrezkoa elkarteko bazkide izatea.

Bestalde, Esperientzia Eskolako taldeetan sortutako proiektuei jarraipena emateko lan batzordeak sortuz joan dira IKASTEN-en. "Ni eskolako seigarren promozioan egon nintzen eta gure proiektua senderismoari buruzkoa izan zen. Irteerak antolatzen ditugu eta transporte publikoa erabiltzen dugu alde batetik bestera joateko", dio Alberdik. Beste lantalde edo batzorde batzuk ere badaude: landareak, antzerkigintza, kafe-tertulia, bidegorria, jostintza, astrologia, Kaleetan Kantuz... "Azken finean, gai asko jorratzen dira eta benetan izugarria da zenbat jende mugitzen den guzti honen inguruan", dio Ana Mari.

"Oso garrantzistua da burua bizirik mantentzea, ezin gara etxean gelditu. Ikasteaz gain, besteei ere erakusten diegu eta harreman pertsonalak asko lantzen dira. Lagun berriak egiten dira hemen eta ikasteko modua oso atsegina da. Ez da eskolan bezala ikasten, hemen munduan egoten ikasten dugu gehienbat", azpimarratu du Ana Mari.

Bidebarrieta, 5


Tel. 943 201 547

CAPI**LASER DEPILAZIOA 30€****Hanka osoak + Izterondoak 90€****Masajeak**

- Osteopatia
- Teknika metamorfikoak
- Masaje terapeutikoak
- Reflexologia
- Masajeak: Thai, Kaliforniarra, Balikoa



BETILE LUZAPENAK
GEL ATZAZKALAK
IA BETIRAKO
MANIKURA



- Mikrodermoabrasioa
- Radiofrequentzia (zimurrak)
- Mantxak (BERRIA)

Gorputz tratamenduak**TEKNIKAK:** Kabitazioa / Radiofrequentzia / MINCEUR

Laser lipolitikoa / Presoterapia / Elektroestimulazioa

5 saioko BONOAK / Zona bat: 35 euro saioa**Aurpegi tratamenduak**

Musika Eskolako rock taldeen kontzertu arrakastatsua

Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako Blue Day eta Face To Eye taldeek, urtero sasoi honetan egiten duten moduan, ikasturtea agurtzeko kontzer-

tua eman zuten eguazten arratsaldean. Emanaldia kalean, Txaltxa Zelaiko musika kioskoan egiteko asmoa zuten gazteek, baina eguerdian



euria hasi zela ikusita, badaezpada azken orduan kontzertua aterpean egitea erabaki zuten eta talde biek Portalean, Musika Eskolan jo zuten eurak ikustera joan ziren lagun eta senideentzat.

Talde biak Musika Eskolako ikasleen eskutik sortu ziren orain dela pare bat urte eta, urtero kurtso amaierarako eskaintzen duten emanalditik kanpora, bestela ere hainbat kontzertu eman dituzte. Face To Eye taldeko kideak Haizea

Hernandez (teklak), Jone Lahidalga (ahotsa), Iñaki Lejardi (bateria), Maria de Blas (bajua), Andrea Gonzalez (ahotsa), Aitor Suarez (gitarra), Irati Goikoetxea (teklak) eta Sofia Matxin (ahotsa) dira eta Blue Day taldekoak, berriz, Idoia Lahidalga (teklak), Julen Leturiondo (ahotsa), Ignacio Gisasola (bateria), Alex Davies (bajua), Asier Martinez (gitarra), Sergio Sola (gitarra), Egoitz San Martin (bibolina) eta Irati Lasa (saxoa).

Txalainak, Hertzainak-en akustikoa zuzenean Belekon

Gaur gauean, 22.30etatik aurrera Txalainak taldeak kontzertua emango du Beleko tabernan. Talde honek Hertzainak talde mitikoaren kantak era akustikoan moldatzen ditu. 2013ko udan, Bilboko Errekalde auzoko jaietan taberna batean kontzertu bakarra emateko asmoz jaio zen taldea, Juanra (Picadura, Barricadari eskainitako taldekoa) eta Manolo (Shisha Pangma-ko kide-ohia) musikarien eskutik, baina esperientziarekin gustora gelditu zirenez, taldearekin au-

rerra egiteko erabakia hartu zuten. Eurrek diotenez, "gurea ez da omenezko ohizko talde bat, gure emanaldietan ez dago bateria, baju eta trikirik. Gure asmo bakarra, bikote akustiko formatuan, Hertzainak taldearen kantak gogoratuz une atsegin bat pasatzea da. Jatorrizko kantuen egitura eta melodiak errespetatzen ditugu, moldaketa akustikoan mamia ateratzen diegu eta, hori eginda, batez ere publikoaren parte-hartzea nahi dugu".



Miren Ajuria Otxandiano

*Beti lurrari itsatsita ere,
irekia ametsera.*

*Eguneroko gaia gaindituz,
prest beti hegan egitera.*

*Bizitza osoa besteak pozten,
bikain zu saiatu zera.*

*Maite zaitugu, egin bai hegan,
zooz zoriontasunera.*



ko ikasle, guraso eta langileak



Aurreko zapatuan, ekainaren 6an “XVIII. Kirola Euskaraz Bizi”, euskera eta kirola batzen dituen jaia ospatu zuten Iturburun. Ikasle, behargin eta gurasoek egindako lanari esker, aurtengoa ere “Olinpiada” aparta izatea lortu zuten. Eguraldia ere lagun izan zuten eta, beraz, jaiarekin bat egin zuten guztiek zapatu egun ederra igaro zuten eta, jakina, euskaraz bizitzeko aldarria kiroltasunez egiteko tartea ere hartu zuten.



BIHAR, EKAINAK 13, OLINPIADA TXIKIA

10:00: Autobusa Egogain-Iturburu

10:15-10:45: Datorren ikasturtean

Iturburura doazen ume eta gurasoek Iturburu ezagutzeko bisita

10:45: Haurrak kantxan egongo dira, tutoreak lagunduta.

11:00: Ikasle, irakasle eta gurasoek “Niri euskaraz mesedez” abestuko dute. Kirol-ekitaldia, nagusien soka-tira saioak eta dominak banatzea

14:00: Bueltarako autobusa

Kirola Euskaraz Bizi





abiadura



kusmina



esprinta



indarra



altuera



aurkezpena



jauzia



erritmoa



ahalegina



hauspoa



koordinazioa



oreka



jokoa



Bernedo eta Ziaran onenak Galdaramiñoko proban

67 lagun iritsi ziren helmugara 18 kilometroko ibilbidea izan zuen VII. Galdaramiñoko igoeran. Jose Mari Bernedo (1:20:38) eta Ane Ziaran (2:00:50) eibartarrak nagusitu ziren domeka goizean jokatu zen proba horretan eta azkenak ere bi ordu eta erdi baino denbora gutxiago behar izan zuen lasterketa amaitzeko.



FELIX BETIA

Aitor Montero bigarrena Jerezen

Hogei herrialdeetako pilotoak izan ziren aurreko domekan jokaturako motorren CEV Espainiako abiadura txapelketan eta Aitor Montero Eibarko pilotoa bigarren sailkatu zen Master 600 bere mailan. Lehen postuan ere izan zen proban, baina 10. itzulian neumatikoa apurtu zitzaion eta ezin izan zion postu horri eutsi. Lortutako bigarren postu horrek postu berera igo da Montero Espainiako txapelketaren sailkapenean.



Arrakasta erritmikoan

Azken asteburuan urrezko amaiera eman zioten denboraldiari Ipuruako amateur eta eskola mailako gimnastek. Euskadiko banakako txapel bi eta taldekako bigarren postu batak aurreko asteburuan kadeteek lortutakoa berretsi zuten. Irati Yarzak senior plus mailako txapela jantzi zuen eta Irene Perezek jubenil B mailakoa. Jubenil A mailako taldeak, bestalde, zilarrezkoa bereganatu zuen mazekin egindako ariketan. Modu horretan, infantil A, kadete B eta jubenil A mailako taldeek urrezkoa edo zilarrezkoa lortu dute Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketa guztietan. Banakakoetan, bestalde, hasi alebinetatik eta senior pluseraino podium guztietan izan dira: zazpi urrezko eta lau zilarrezkoekin.



GAZTE-MULTIABENTURA

izen ematea zabalik

TXANDAK	DATAK	ADINAK	PREZIOAK
1 TXANDA	Uztailak 6-10	D.B.H. 1-2	50 €
2 TXANDA	Uztailak 13-17	L.H. 4-6-6	50 €
3 TXANDA	Abuztuak 3-7	D.B.H. 1-2	50 €
4 TXANDA	Abuztuak 24-29	L.H. 4-6-6	50 €

L.H. 4, 5, 6
D.B.H. 1-2

Uda 2015 lekuak

ARRATSALDE PASAK

Anima zaitetz!!

50€

ASTELEHENA

Mutrikuko igerilekuak

ASTEARTEA

Espeleo

ASTEAZKENA

Uztai-jaurtiketa
gynkana

OSTEGUNA

BTT + IGERILEKUAK

OSTIRALA

Eskalada

Deban

Hartzaileak Eibar, Elgoibar, Mendara, Mutriku eta Debako 9-14 urte bitarteko gazteak

Ordulegia 16:30-19:30

Tel. 943 19 11 72 / 695 783 656
debanatura@hotmail.com www.debanatura.net

Boxeo eta sanda jaialdia gaur 22.30etan

Urterokoari jarraituta, gaur gauean boxeo eta sanda jaialdia izango da Astelenan. Amateur mailako bost boxeo borroka eta sanda profesionaleko beste hiru ikusteko aukera izango da. Boxeoko borrokak hiru minutuko hiru asaltora jokatu dira, minutu bateko atsedendiarekin: arina mailako bi lehia izango dira (Ivan Vigo vs Lander Campo eta Kevin Baldosino vs Manuel Prieto), luma mailako beste bi (Mario Espina vs Leo Barruete eta Alazne Fenoy vs Jenifer Sarango) eta maila erdiko Asier Martin vs Asier Vargas. Sanda borroketan, bestalde, Euska-

di eta Kataluniaren arteko lehia izango da, bi minutuko hiru asaltotan erabaki beharreko lehiekin. Ramon Quinaren Ttatt gimnasioa hiru ordezkari izango dira parte hartzen, tartean Espainiako txapeladuna den Mikel Astigarraga eibartarra: 70 kilotan Aitor Perez eta Iker Sarasola "Sanso" izango dira nor baino nor, 75-80 kilotan aipatutako "Asti" k Aly Rhadaguari egingo dio aurre eta, azkenik, 90 kilotan Jesus M^o Guzmanek eta Xabi Arenal "Caserok" neurtuko dituzte indarrak. Quinak borrokalariei maila nabarmendu du: "Espainiako txapelketetan hainbat



Jose Perez "El Tigre de Amaña" boxeolari-ohia eta Juanma Cano Radio Eibar-eko esataria.

domina lortutakoak dira tartean". Ekitaldia ikustera joateko animatu nahi du jendea, "ez delako gauza bera pantaila batean eta zuzenean ikustea; aurrez aurre askoz ere bi-ziagoa da". Sarrerak 12 (harmailak) eta 15 eurotan (aulkiak) daude.



Luis Sudupe "Egurrola" eta Elias Zubizarreta omendu zituzten azken jardunaldian.

Nesken errugbia kalean izango dugu bihar

Eibar Rugby Taldeko neskek errugbia kaleratzeko apostua egin dute eta Eibarko zein Debabarreneko 14 urtetik gorako neskenetzako egitaraua prestatu dute biharko Untzagan. "Kirol hau nolakoa den ezagutu eta gurekin praktikatzera animatu nahi genituzke" diote antolatzaileek. 11.00etan hasiko da jardunaldia, rugby ginkanarekin, 13.30ean 3. denbora (jan eta edan) egingo dute, 14.30etan brindisaren ordua izango da eta bideo-emanaldia eskainiko dute eta, azkenik, 18.30etan trikipoteoa abiatuko da Untzagatik, Eibarko trikitilari gazteek lagunduta.



Gipuzkoako hiru-txirilo txapela San Migelera

Imanol Osorok Floreagan egindako plenoak erabaki zuen Gipuzkoako 46. edizioa eta San Migeleko txapela jantzi zuen Asola-Berriko Ibai Diezi eta San Migeleko Unai Loiolari bi txirilo aldea aterata; Asola-Berriko Ganix Rodriguez hirura geratu zen. Eibarko ordezkariak nagusitu ziren bestelako mailatan: Laura Ribas onena izan zen ema-

kumezkoetan, Bittor Ugarteburu nagusietan, Egoitz Blanco jubenetan eta Ibai Diez eta Ganix Rodriguez binaka. Taldeka, hori bai, azken jardunaldian San Migel A-k (150) aurrea hartu zion Asola-Berri A-ri (147). Gipuzkoako txapelketako lehen 64 sailkatuek Lehendakari Saria jokatu dute hilaren 20an, kanporaketa erara.


80. San Juan Sari Nagusia jokatu da domekan

Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutako 80. Eibarko San Juan Sari Nagusia jokatu da. Jubenil mailako txirrindulariek hartuko dute parte 96 kilometro izango dituen proban. Untzagan 09.30etan irtenda, oraingoan Urkizun izango dute helmuga 12.00ak baino zertxobait lehenago (aurreko edizioetan Unben amaitu izan da lasterketa). Eibartik Arrasateko Eroskiraino joko dute lehenengo, handik itzulita Maltzagan Mutrikurako alde hartuko dute eta, Kalbario eta Azkarate mendateak gaindituta, Eibarren amaituko da lasterketa.



Deltecoko triatloilariak lehenak taldeka Aritzalekun

Zapatuan Aritzalekun jokatu den triatloi probetan Delteco Eibar Triatloiko hainbat ordezkari izan ziren eta, horrez gain, Ander Santosek, Pello Osorok eta Iñigo Unanuek osatutako hirukotea talde onena izan zen distantzia olinpikoan. German Amuategik, Iñaki Osorok eta Jon Illarramendik beste talde bat osatu zuten eta, norbanakoan, Txomin Osorok (17.a izan zen), Iñaki Serranok eta Iñaki Kondek hartu zuten parte. Distantzia sprintean, berriz, Juanjo eta Ibon Romero aita-emeak eta Ioseba Tamayo izan ziren.



San Juan pilota txapelketa jokatuko da bihar Astelenan



Aurreko asteburuan Caelo Memorialean jokatu zuten Deportiboko pilotariak. LEIRE ITURBE

Aurten jardunaldi bakarra izango du txapelketak, bihar goizeko 10.00etan hasiko dena. Berezia izango da gainera, hiru pilota partiduekin batera kirol egokituaren mailako Gipuzkoako pala txapelketaren finala izango baita jokoan. Hasteko, benjamin mailako Acuña-Amuategi eta Zabala-Ibarra bikoteen arteko lehia izango da. Jarraian, alebin mailan Fuentes-Azkargorta eta Camina-Sanchez bikoteek jardungo dute, nor baino nor. Hirugarren partiduan, jaialdiaren erdian, aipatutako pala txapelketa ikusi ahal izango da eta, amaitzeko, senior mailako beste neurketa bi izango dira: lau eta erdiko kaiolaren barruan, Txurruka I.ak eta II.ak neurtuko dituzte indarrak; eta binaka Narbaiza-Agirresarobe Eibarko bikoteak Zumarragako Vianak eta Urretxuko Ibañezek osatutako ari egingo dio aurre. Egun bakarrean ez da erraza Klub Deportiboko pilota batzordeak antolatutakoa baino jaialdi bikainagorik antolatzea.

Esmorgak penaltietan irabazi zuen foball-zaletuko Kopa

Foball-zaletu Kirolbet tomeoak lehia borrokatua izan zuen denboraldiari agur esateko jardunaldian: zapatuan jokatutako Kopako finalean Bar Txokok eta Esmorgak hiruna berdindu zuten eta penaltietan erabaki zen partidua. Esmorgak jantzi zuen txapela eta talde bereko Sergio Correa izendatu zuten neurketako jokalarari onena. Partiduaren amaieran, ohikoa denez, denboraldiko sariak banatu ziren: Durangok Liga irabazlearena jaso zuen eta Koskorrek eta Txokok bigarren eta hirugarrenarenak. Bar Aretok eraman zuen kiroltasun saria, Durangok gol gutxien jasotako atezainarena, Koskorreko Carolok goleatzaile nagusienarena eta Pellok txapelketako epaile erregularrarena.



Urko 14 Alkidebak Preferentera igo zuen

Kluba sortu eta denboraldi berean maila igotzea ez da edozeinek lortu dezakeena. Balentria hori lortu dute Urko 14 Alkideba FK-koek, batez ere denboraldi amaiera ezinhobeagoari esker. Azken urratsa Amara Berriri partidu biak irabazita egin dute: Unben 3-2 irabazi eta gero, 0-2 nagusitu ziren eibartarrak Donostian. Lorpen handia, beraz, hasi-berriena.

17 talde foball 7 torneoan

Hiru jardunaldi jokatu dira dagoeneko eta beste bi falta dira txapelketako lehen fasea amaitzeko. Bailarako foball 7 txapelketan 17 taldek dihardute parte hartzen, lau multzotan banatuta, eta momentuz Roketxe Crew eta Pauperrimo dira nabarmendu direnak A multzoan, partidu gehien jokatu dituzten taldeen artean.



Funeraria-Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

Isasi, 31 Egunero 06.00-22.00
943 207 737

*Etorri!
Zure etxian
egongo zara!!*

Astelehenetik ostegunera
PIINTXO-POTEA!

KAFETEGIA OKINDEGIA

SUTINDO



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GAS INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA



Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



BEGOÑA TELLERIA (Untzagako abesbatza): "Airasek abesbatzarekin jarraitzeko eskatu zigun"

Bihar (zapatua, hilak 13) 12.00etan Untzagako jubilatutako abesbatzaren eta gitarren kontzertua hartuko du Coliseo antzokiak (sarrerak euro bitan salgai). Ikasturte amaieran urtero eskaintzen duten emanaldia abesbatzaren sortzailea eta zuzendaria izan zen Jose Airasi omenaldia egiteko aprobetxatuko dute. Martitzenean kontzerturako entseguan egon ginen, Begoña Telleria behin-behineko zuzendariarekin biharkoari buruz berbetan.

- Nolatan antolatu duzue biharko kontzertua?

Urtero, horrelako sasoiaren abesbatzak Coliseoan kontzertua ematen du. Horrekin ikasturtea agurtzen dugu, Arrateko jaiak igaro eta gero, oporretatik bueltan berriz beharrean hasteko. Abesbatza orain dela hamalau urte sortu genuen, eta orain dela urtebete pasatxo gaixotu eta hil zen arte zuzendu zuen Jose Airasi omenaldia egiteko aukera ikusi genuen eta hala egingo dugu.

- Urtean zehar nondik nora ibiltzen zarete?

Coliseoan urtero eskaintzen dugun kontzertuaz gain, Egogain gerontologikoan eta San Andres zaharren egoitzan ere urtero abesten dugu. Eta, hortik kanpora, deitzen diguten edozein tokitan kantatzeko prest gaude. Azaroan, adibidez, urtero egiten den abesbatzen topaketa batean parte hartzen dugu eta aurten Hondarribira joango gara.

- Nolakoak izaten dira abesbatzaren entseguak?

Gaur egun 65 andra-gizon gaude abesbatzan eta entseguak astean birritan egiten ditugu. Abesbatza sortu zenetik zuzendaria Jose Airas izan zen; baina, orain dela urtebete inguru gaixotu eta hil zenetik, abesbatza norbaitek zuzendu behar zuela eta, ni hasi nintzen horretan, Carlos Sanchez Barba musika bandako zuzendariarekin batera. Orain arte, berak astean behin etortzeko aukera baino ez duenez, entseguetako bat nik zuzentzen dut eta bestea berak. Hala ere, irailetik aurrera entsegu biak Sanchez Barbak zuzenduko ditu.

- Sortzaile eta zuzendaria izandakoaren heriotzak hutsune handia lagako zuen abesbatzan, ezta?

Hala da, baina berak beti esaten zigun abesbatzak aurrera egin behar zuela, edozer gertatuta ere kantatzen jarraitzeko. Beraz, berak eskatutako moduan abesbatzarekin jarraituko dugu eta Cielito musika bandako zuzendariak asko lagunduko digu horretan. Jose Airasek musikaz asko zekien eta, hil aurretik, lan handia laga zuen eginda. Gure abestietarako musika guztia ordenagailuan gordeta zuen, berak idatzitako abestiak... Izan ere, Josek oso abesti politikak, hunkigarriak idatzi zituen eta horietako batzuk bihar kantatuko ditugu, besteak beste kontzertua zabalduko duen "Eibar habanera" eta "No volveran".



Tribual, berrituta eta eleanitz

CodeSyntaxek iazko uztailean Tribual, bere lehen aplikazio mugikorra euskeraz eta dohainik merkaturatu eta gero, orain jokoaren bertsio hobetua aurkeztu du: bigarren bertsioa eraberrituta dator, teknikoki hobetua eta galdera gehiagorekin aberastuta eta, horrekin batera, eleanitza bihurtu dute (euskeraz ez ezik, gaztelaniaz eta ingelesez jokatzeko aukera izango da aurrerantzean). Tribual mugikorretan erabiltzeko jokoa da, Trivial ezagunaren estilokoa, eta jokalariai bost galdera erantzun behar ditu, horretarako ahalik eta denbora gutxien erabilita. Euskarazko bertsioak sarean eman dituen hilabateetan 1.500 lagunek jaitsi dute eta ia ia 300.000 partida jokatu dira. Horrez gain, GipuzkoaAPPs lehia-keta irabazi du. Galderak automatikoki sortzen dira eta dagoeneko 130.000ko sorta prest dagoela eman dute aditzera.

LEIRE ITURBE



Poesia gau magikoa

Aurreko zapatuko giro onarekin animatuta, jende asko batu zen Ibarkurutzeko iturriaren inguruan, Geltoki Elkarteak antolatutako ekitaldian poesia eta musikari eskainitako gauaz gozatzera. Itzamna akademian Maite Lorezok gidatzen duen poesia tailerreko kideekin batera, kanpotik etorritako beste hainbat lagunek jardun zuten errezitatzen eta, tarteka, olerkiei laguntzeko zuzeneko musika eskaini zuten Nathali Chuchón, Javier Triguero eta Mikel Inun-ek, denek elkarrekin gauari ikutu magikoa ematen.

Goi mailako hirukotea Amañako jaietan

Uztaileko lehen asteburuan ospatuko dira Amañako jaiak aurten eta, betiko lez, jaien lehen gauerako kontzertu mundiala lotu du Jai Batzordeak: Betagarri, El Ultimo Ke Zierre eta Zarpazo a Cicatriz, hiru taldeek bata bestearen atzetik jardungo dute taula gainean uztailearen 3an (barixakuan), 23.30etatik aurrera.



El Ultimo Ke Zierre.

Dantzari Eguna, gaur arratsaldez Untzagan

Gaur arratsaldean, 19.30etatik aurrera Kezka dantza eskolako eta dantza taldeko dantzariak eta musikariek Untzagan aurkeztuko dituzte jendearean urtean prestatzeko ibili diren dantzak, ikasturte amaieraren inguruan urtero antolatzen duten Dantzari Egunean. Ohikoari jarraituta, dantza eskolako talde bakoitzak bere errepertorioa prestatu du eta, aurreratu dutenez, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa



Garaia eta Behera edo Lapurdiko dantzak ikusteko aukera izango da. Gaurko saioan dantza eskolako 150 ikasleak eta nagusien taldeko 30 dantzariak arituko dira dantzan. Musikari dagokionez, Jose Migel Laskurain, Andoni Altzibar, Amaia Baglieto eta Iñaki Barua arduratuko dira txistu eta danborraz, Lascurainek berak Andoni Urbietarekin eta German Ereñarekin jardungo du gaita eta dan-

borrarekin, eta Adolfo Jainaga eta Unai Narbaizak trikitixa eta panderoarekin.

Bestalde, Kezkaren dantza eskolan datorren ikasturterako matrikulatu nahi duten ikasle berriek datorren ekainaren 18an (egunean) izango dute horretarako aukera, 19.00etatik 20.00etara Portaleko 3. solairuan (izena eman ahal izateko sei urtetik gora izan behar da).

Maite Arriagaren lanak Topalekuan

Gaur arratsaldean, 19.00etan inauguratuko du Maite Arriaga Arrizabalagak "Sormenezko Tailer Artistikoak" erakusketa, Arrate Kultur Elkartearen Topalekuan. Artista eta irakasle eibartarraren irudiak eta bestelako lanak hilaren 21era arte egongo dira ikusgai, ohiko ordutegian: astegunetan 19.00etatik 21.00etara (taberna barruan dagoen atetik sartu beharko da) eta asteburuan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara (sarrera Topalekuko atetik).



laburrak

KANTUGIRO LEHIAKIDE BILA

Euskal Telebistako "KantuGiro" saioa Euskal Herriko jairik esanguratsuenen giroa eta karaokea uztartzen dituen programarako lehiakideak behar dituzte. Zuriñe Hidalgo kantari eta aurkezleak gidatzen duen saioan parte hartzeko 14 urtetik gorakoa izatea eta oholtza gainean kantatzeko lotsarik ez izatea eskatzen dute. Banaka ala bikoteka abestu daiteke eta 150 euroko saria dago jokoan. Lehiakide bila Eibarrera etorriko dira, ekainaren 21ean (16.00etatik aurrera). Bestela, parte hartu nahi duenak 626 18 14 17 telefonora deitu edo whatsapp bidali dezake edo, bestela kantugiro@eitb.eus helbidera idatzi.



ZINERIK EZ SANJUANETAN

Asteburu honetan betiko martxan eskainiko dute zinea Coliseoan, baina datorren asteburuan (hilaren 20tik 22ra), San Juan jaiak direla eta, zine emanaldirik ez dela izango aurreratu dute arduradunek.

"Euskal Jaia Eibarren. 50 urte"



LIBURUA ETA DVD-A
10 €-TAN SALGAI

- Klub Deportiboan (T. Etxebarria, 16 -ARRATSALDEZ-)
- ...eta kitto!-n (Urkizu, 11)
- Yraolagoitia liburudendan (Bidebarrieta, 20)
- Echetto prentsa kioskoan (Urkizu, 6)
- Arriola prentsa kioskoan (Untzaga, 10)
- Laes informatika dendan (T. Anitua, 4)

Asteburuak sanjuan usaina dakar

Oraindik egun batzuk falta zaizkigu ekaineko lehen hamabostaldian **sartzeko**, baina, hala ere, San Juan jaietako giroa poliki-poliki herriko txoko guztiak hartzen joan da eta, konturatu orduko, gaur bertan hasi eta domekan asteburuak agurtu bitartean, gure herriko jai nagusien inguruan antolatutako hamaika jarduera eta ekitaldi egingo dira gurean, eta horietako asko, gainera, kirol arloko txapelketak izango dira: besteak beste, Urbat IKE-ren eskutik gaur iluntzean XXVII. **San Juan Igeriketa Saria** jokatu da Ipurua kiroldegian eta gauean, berriz, Astelena frontoiak **Boxeo Gaua** hartuko du.

Biharko antolatu direnen artean, bestalde, azken urteotan egindakoren bidetik, aurten ere **Extremadurako Herrialde-Elkarraldi Jardunaldiak** hartuko ditu Arratek, goizeko 19.30etan hasi eta 19.30ak arte. Arratsaldeko 18.00etan, berriz, Eibarko zezen plazak **zezenketa** hartuko du, Campo Ledesmarko Lorenzo Rodriguez de Espiojaren zezenekin eta Canales Rivera, Julio Benitez "El Cordobes" eta Alejandro Gonzalezen parte-hartzearekin. Ordu berean, baina Txaltxa Zelaian, Urko Arkularien Klubaren eskutik **arku-tiroan** jarduteko aukera izango da,



20.00ak arte. Eta 23.00etan hasita **Esne Beltza** taldeak Untzagan emango duen kontzertuak jai egitarauan bete-betean murgiltzeko aitzakia paregabea emango dio bati baino gehiagori. Domeka goizerako bestelako plana proposatzen dute Eibarko Txori Lagunak elkartekoek, **Eibarko Hiria Txori Kantarien XVI. Txapelketa** antolatu dute eta. Arraten jokatu da, baina eguraldi txarra eginez gero, Altxubarrenen, Azitaingo frontoian egingo dutela aurreratu dute.

Eta asteburuan motorrak berotzen hasita, hurrengo asteburuak noiz ailegatuko zain egon barik, martitzenetik aurrera Untzagako karpan Eibar Rugby Taldearen **Garagardo Jaia** zabalduko dute egunero, hilaren 21era arte.



Zirko tailerra Urkizun

"Barixakuk jolasian", ikasturte osoan zehar garatutako **den ekimena izan da**; hilean behin umeei eta gurasoek elkarrekin jarduera desberdinak egin dituzte: eskulan-tailerrak, hitzaldiak, ikastaroak, jolasak eta abar. Amaiera emateko zirko tailerra egongo da datorren eguenean (ekainak 18), Urkizuko parkean, arratsaldeko 17.00etatik aurrera. Malabareak, ekilibrioak eta akrobaziak egiteko aukera izango dute 3 eta 12 urte bitarteko umeei. Jarduera hau irekia izango da. Hau da, ez da beharrezkoa Gurasoak Berbetan programan izena emanda egotea bertan parte hartu ahal izateko. Baina bai eskatuko zaie umeei gurasoekin (edo heldu arduradunarekin) lagunduta etortzea. "*Gurasoek programa ezagutzea nahi dugu, seme-alabekin ondo pasatzea, beste guraso batzuekin egotea eta hau dena euskaraz egitea*", adierazi dute programako dinamizatzaileek.

...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen Berbetan mintzapraktika programako atal garrantzitsuenetarikoa da gurasoena. "Gurasoak Berbetan" programak gurasoen erabileran eragitea du helburu, bai gurasoak seme-alabei ari direnean zein euren artean dihardutenean ere. Transmisioaren gaia oso garrantzitsua da, baita umeei esaten diegun horren eredu izatea ere. Euskaraz hitz egiteko gaitasuna izanda, ez du zentzurik umeei euren artean euskaraz egiteko eskatzea, geure artean gazteleraz dihardugula ikusten badute.

Musika Bandaren kontzertua Untzagan domekan

Cielito Musika Bandak kontzertua emango du domekan, 12.00etatik aurrera **Untzagan**. Carlos Sanchez Barbak zuzenduko du emanaldia, programa honi jarraituta: "Manuel Santos" (martxa, C. Marin), "Gigantes y Cabezudos" (aukeraketa, M.F. Caballero), "Jaialdia" (aukeraketa, I. Urkizu), "Indiana Jones" (soinu banda, J. Williams) eta "Camilo Sesto N°1" (aukeraketa, Camilo Blanco, Carlos Sanchez Barbaren konponketekin).



MARGARITA OSA IDIGORAS

II. urteurrena (2013-VI-12)



"Zu joan zara, baina, zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza"



laztanak emoten...

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, JOSEFA, atzo 93 urte egin zenduazena-eta. Etxekuen eta, batez be, Naia, Aitor, Nora eta Francesco billoben partez.



Zorionak, IZARO, aurreko zapatuan zortzi urte bete zenduazena-eta. Laztan potolua famelixako guztion partetik.



Zorionak, BEÑAT, atzo 5 urte bete zenduazena-eta. Zure anaixa Oier, aitta, ama eta amaman partez: Segi holan, alaixa eta jatorra izaten.



Zorionak, UNAI, gaur zortzi urte betetzen dozulako. Laztan haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Markelen partez.



Zorionak, IÑIGO! Bi urte gure bizitzak alaitzen! Milla muxu famelixakuen eta, batez be, Jonen partez.



Zorionak, IXONE!!, astelehenian gure printzesak bost urte egingo ditte-eta. Muxu bat etxekuen eta, batez be, Amaiaeren partez.



Zorionak, MARKEL, atzo zortzi urte egin zenduazelako. Aitta, ama eta Joneren partez.



Zorionak, MAIDER Urizar Bravo, gaur 10 urte egiten dozu-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, AMAIA, gaur sei urte betetzen dozu-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez



Zorionak, AITANA, etxeko printzesak haraiñegun bost urte egin zittuan-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, MARKEL, astelehenian bederatzita urte bete zenduazena-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, JON, domekan zazpi urte egingo dozu-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Markelen partez.



Zorionak, IRAIA (hillaren 2xan zortzi urte egin zenduazena) eta NAROA (11 egingo dozu hillaren 22xan). Etxekuon partez.



Zorionak, IÑAKI, gaur zure lehelengo urtia bete dozu-eta. Aniaren partez.



Zorionak, BEÑAT, gaur sei urte potolo betetzen dozu-eta. Jarraitu hain potolo eta jatorra izaten. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, KLOE, gaur hiru urte egiten dozu-eta. Etxekuen eta, batez be, Mararen partez.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
13an: 19.45, 22.30
14an: 20.00
15ean: 20.30

"Nuestro último verano..."
Zuzendaria: Andy Hamilton



(2 ARETOAN)
13an: 19.45, 22.30
14an: 20.00
15ean: 20.30

"Requisitos para ser..."
Zuzendaria: Leticia Dolera



(ANTZOKIAN)
13an: 19.45, 22.30
14an: 20.00
15ean: 20.30

"Jurassic World"
Zuzendaria: Colin Trevorrow



hildakoak

- Miren Ajuria Otxandiano. 59 urte. 2015-VI-4.
- Francisca Garitagoitia Arrutain. 89 urte. 2015-VI-7.

jaiotakoak

- Adam Erraihani Gomez. 2015-V-21.
- Malen Arregi Manson. 2015-V-29.
- Gael Garcia Santana. 2015-VI-2.
- Anton Arizmendiarieta Mendikute. 2015-VI-2.
- Nora Lucena Amas. 2015-VI-3.
- Malen Lucena Amas. 2015-VI-3.
- Luka Ugarte Antxustegi. 2015-VI-6.

BARIXAKUA 12

GAZTELEKUA

16.30. Pultserak egiteko aukera. Indianokuan.

BILERA

18.30. Sanjuanak prestatzeko, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Txaltxa Zelaiko kioskoan.

DANTZARI EGUNA

19.30. Deportiboaren eta Kezka Dantza Taldearen eskutik. Untzagan.

IGERIKETA

19.45. XXVII. San Juan Saria, Urbat IKE-ren eskutik. Ipurua kiroldegian.

DANTZA

20.00. Eibarko Dantza Garaikidearen emanaldia (3 euro). Coliseoan.

KONTZERTUA

22.30. Txalainak taldea (Hertzainak taldearen bertsio akustikoa). Beleko tabernan.

BOXEOA

22.00. Boxeo Gaua, Gasteiz Sport-en eskutik. Astelena frontoian.

KONTZERTUA

23.00. Eibarko Musika Eskolako Mariatxiaren emanaldia. Laurel&Hardy tabernan.

ZAPATUA 13

OLINPIADA TXIKIA

10.00. Untzaga-Iturburu garraio zerbitzua.

10.15/10.45 Datorren ikasturtean Iturburura joango direnek ikastetxea ezagutzeko aukera.

11.00. Ikasle, irakasle eta gurasoek "Niri Euskaraz Mesedez" abestea eta kirol ekitaldia. Atsedena. Nagusien sokatira saioak eta dominak banatzea.

14.00. Bueltarako garraioa.

JARDUNALDIA

10.30/19.30. XXXI. Extremadurako Herrialde-Elkarraldi Jardunaldia. Arraten.

GELTOKI MARKET

10.30/15.00. Azoka.
11.30. Umeendako ikuskizuna, Cruz Nogueraren eskutik. Amaieran (12.20) goxokiak banatuko dizkiete (Valle tabernaren terrazan). Juanma Cano DJ-aren saioa, futbolin eta igel-toka txapelketa... Estaziño kalean.

NESKEN RUGBI EGUNA

11.00. Rugbi ginkana.
13.30. Hirugarren denbora (jana eta edana).
14.30. Brindisa eta bideo emanaldia.
18.00/22.00. Euskal Garagardo Artisauen erakusketa (T. Etxebarrian).
18.30. Eibarko Trikitilari Gazteek alaitutako trikipotea, Untzagatik.

ISEKIN JARDUNALDIA

11.30. "Soñadores de Esperanza" ipuin solidarioen salmenta.
12.00. Txosna zabaltzea.
12.30. Ipuin-kontalari saioa, Marca Radio-ko Borja Rodríguez-en eskutik.
13.15. Malabar-ikuskizuna, Rufus Handiaren eskutik.
15.00. Herri-bazkaria (udaletxeko arkupeetan).
17.00. Ipuin solidarioen salmenta.
18.00. Txosna zabaltzea.
18.30. Wu Shu, Ttatt gimnasioko Montxo Kinaren eskutik.
20.00. "Jukebox" emanaldia, Biraka Dantza-ren eskutik.
21.00. Eibar FTkoek sinatutako kamiseten zozketa. Untzagan.

KONTZERTUA

12.00. Untzagako jubilatutako etxeko abesbatza eta gitarrak. Omenaldia Jose Airasi (2 euro). Coliseoan.

GAZTELEKUA

17.00. Arku-tiroa (18.00etan Txaltxa Zelaian). Pultserak egiteko aukera. Indianokua gaztelekuan.

ARKU-TIROA

18.00/20.00. Arku-tiroa, Urko Arkularien Klubaren eskutik. Txaltxa Zelaiko kioskoan.

ZEZENKETA

18.00. Canales Rivera, Julio Benitez "El Cordobes" eta Alejandro Gonzalezen parte-hartzearekin. Campo Ledesmako Lorenzo Rodríguez de Espiojaren zezenak. Zezen plazan.

KONTZERTUA

23.00. Esne Beltza taldea. Untzagan.

DOMEKA 14

TXORI KANTARIAK

09.00/14.30. Eibarko Hiria XVI. Txapelketa. JJJ Memoriala. Eibarko Txori Lagunak-en eskutik. Arraten (eguraldi txarra eginez gero, Altxubarrenen, Azitaingo frontoian).

TXIRRINDULARITZA

09.30. Sanjuanetako LXXX. Txirrindularitza Sari Nagusia, gazteentzat, Eibarko Txirrindulari Elkartearen Eskutik. Irteera 09.30etan Untzagan. Helmuga 11.54etan Urkizun.

KONTZERTUA

12.30. Isabel Laspiurren ikasleak "Piano-rock eta beste" (3 euro). Coliseoan.

KONTZERTUA

12.45. Cielito Musika Banda. Untzagan.

GAZTELEKUA

17.00. Play/Wii eta pultserak egiteko aukera. Indianokuan.

GIMNASIA ERRITMIKOA

19.00. Ipurua taldearen erakustaldia. Untzagan.

MARTITZENA 16

GARAGARDO JAIA

19.00. Inaugurazioa, Eibar Rugby Taldearen eskutik. Ekainaren 21era arte egunero zabalik. Untzagako karpan.

EGUAZTENA 17

EMAKUMEEN AZTARNAK

11.30. "Emakumeen aztarnak Eibarko industrializazio-prozesuan" proiektuaren inguruko saio irekia. Untzagako jubilatutako etxean.

DANBORRADA

19.00. Umeen entsegua.
20.00. Nagusien entsegua. Beistegi eraikinean (Bittor Sarasketa kalean).

IKUS-ENTZUNEZKOAK

19.30. "Tanganika lakua. Zanzibar" argazki erakusketa, Periko Iriandoren eskutik.. Klub Deportiboan.



EGUENA 18

ZIRKO-TAILERRA

17.00. Zirko-tailerra eta ikuskizun irekia. Gurasoak Berbetan egitarauaren barruan. Urkizun.

KEZKA DANTZA

19.00/20.00. Datorren ikasturtean (2015/2016) Kezka Dantza Taldean euskal dantzak ikasi nahi dutenentzako matrikulazioa. Portalean (3. solairuan).

KALERATZEAK STOP

19.00. Plataformako bilera irekia. Portalean.

AMAÑAKO DANBORRADA

19.00. Umeen entsegua.
20.00. Nagusien entsegua. Amaña ikastetxean.

PORROTEN GAUA

19.00. Ekingunek antolatutako ekitaldian parte hartzera joandakoei harrera.
19.15. Aurkezpenak.
21.00. Pintxo-potea eta elkar ezagutzeta.
22.00. Amaiera. Arrate Kultur Elkartearen.

eguraldia

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

- ✓ **Ekainaren 17ra arte**
ZERAMIKA ETA DIBUJO UDAL ESKOLETAKOEN ikasturte amaierako erakusketa. *Portalean.*
- ✓ **Ekainaren 30era arte**
“ACCIO FOTOGRAFICA” (Ripollet) taldearen argazki erakusketa. *Depor tabernan.*
VIRGINIA ARAKISTAINEN “Venezia” argazki erakusketa. *Ambigú tabernan.*
FERNANDO RETOLAZAREN “Nepal” argazki erakusketa eta salmenta. *Portalea tabernan.*

lehiaketak

- ✓ **Tortila txapelketa**
Ekainaren 24an, 18.00etan, txosnagunean (Errebalen). Izen-ematea eta informazioa: jaixak herrixakherrixandako@gmail.com eta Facebook bidez.
- ✓ **Sanjuanetako Marmitako txapelketa**
Ekainaren 25ean, 11.30ean, Untzagan. Izen-ematea eta informazioa: ekainaren 17ra arte, Pegoran (010 eta 943-708400 telefono zenbakietan).
- ✓ **Maskota lehiaketa**
Uztailaren 4an, 11.30etan, El Corte Ingléseko terrazan (3. solairuan). Izen-ematea eta informazioa: Ekainaren 27ra arte, El Corte Ingleseko Bezero Arretan (1. solairuan).
- ✓ **On Ekin, Enpresa ideia eta proiektuen lehiaketa**
Idea/proiektuak aurkezteko epea: uztailaren 2ra arte (2. fasea, uztailaren 9ko afarian). Informazioa: ekingune.com webgunean, ekingune@ekingune.com helbidean edo 943-208420 telefono zenbakian.

farmaziak

- ✓ **barixakua 12**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **zapatua 13**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **domeka 14**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **astelehena 15**
EGUNEZ **Castafio** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **martitzena 16**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **eguztena 17**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **eguna 18**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **barixakua 19**
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

GAUEZ BETI -2015EAN-Elorza (J. Gisasola, 18)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia943 03 25 00
- Torrekoa943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 21.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 22.50etara ordu. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 22.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu eta 19.30etatik 22.30etara ordu.

EIBAR-BILBO. Lanegunak: 06.40-etatik 20.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 07.15, 08.00, 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Lanegun eta zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.40 eta 20.40. Jaiegunak: 12.00 eta 20.00. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatuak eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 08.55, 11.35, 14.35, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 06.45, 09.45, 12.45, 15.45, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.35 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

		2		8			
9	5		1				
1			9		5		
6		1		2		8	
	8						3
		9		7		1	4
			7		3		9
				8		1	2
			9		7		

1	8	6	5	3	2	9	7	4
3	4	7	9	6	1	8	5	2
5	9	2	7	8	4	3	6	1
2	3	8	6	5	9	1	4	7
9	7	5	1	4	3	6	2	8
4	6	1	8	2	7	5	3	9
6	5	9	2	7	8	4	1	3
7	1	3	4	9	6	2	8	5
8	2	4	3	1	5	7	9	6

AURREKOEN EMATZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Eibarren. 3 logela, egongela, sukalde, 2 komun eta trasteroa. Igogailua. Jantzita. 5 horma armairurekin. Argitsua. 130 m². Tel. 626-203838.

1.2. Errentan

- Landetako kanping batean mobilhomea alokatzen da: pizsina klimatizatuak toboganekin, spa, tenis pista etb. Tel. 628-573783.
- Pisua behar da alokairuan Eibarren edo Sorraluzen. Gehienez 500 euro ordaintzeko hilean. Tel. 632-337083.
- Logela hartuko nuke alokairuan Eskoriatzan. Tel. 688-820508.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Taberna traspasatzen da Eibarren. Alokairua: 900 euro. Traspasoa: 6.000 euro. Tel. 630-644175. Maria.
- Garaje bikoitza salgai Eibarren, Urkizu inguruan. Tel. 617-336462. Mikel.
- Garaje itxia salgai Eibarko erdialdean. Tel. 688-678934.

3.2. Errentan

- Martxan dagoen ileapaindegia alokatzen da Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.
- Taberna traspasatzen da Eibar erdialdean. Martxan bezero finkoekin. Tel. 695-711730.
- Lokala traspasatzen da Isasi 19an (Mahatsondo). Tel. 686-154867.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska euskaldun arduratsua eskaintzen da administrari jarduteko eta umeak zaintzeko. Tel. 665-741272.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-841158.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarera jarduteko. Esperientzia. Tel. 698-793400.
- Neska eskaintzen da lan egiteko. Tel. 687-362773.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta tabernan jarduteko. Tel. 632-441528.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 647-155908.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 679-912841.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Erreferentziak. Tel. 652-587259.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Erreferentziak. Tel. 632-966192.
- Emakume euskalduna eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko eta partikularrentzat janaria prestatzeko. Tel. 690-864680.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko: dendari, nagusiak zaindu... Tel. 632-426847.
- Mutil euskalduna eskaintzen da tabernari, dendari, terrazan kamarero, tailerrean jarduteko... Tel. 678-871570.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 631-124942.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 692-588534.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 600-836168.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-387305.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 686-265293.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da supermerkatuan lan egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 666-720829.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Tel. 632-869521.
- Neska euskalduna eskaintzen da ekainean eta uztailean umeak zaintzeko. Tel. 680-923291.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 9 urteko esperientzia. Tel. 606-007742.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-139915.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 626-722291.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-337083.
- Neska euskalduna eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.

4.2. Langile bila

- Esperientziadun sukaldaria behar da Zubi-Gain kafetegian. Tel. 650-409249. Txomin.
- Pertsona arduratsua behar da asteburuetan nagusia zaintzeko Markinan. Tel. 610-603631.
- Esperientziadun kamarera/o eta sukaldaria behar dira egun osorako, behin-betiko kontratua izateko aukerarekin. Bidali curriculum-a argazkiarekin: camareros12345@gmail.com
- Emakume euskalduna behar da egunero bi ordu eta erdi (07.15-09.45) umea zaintzeko. Tel. 618-286985 eta 666-195711.
- Neska euskalduna behar da uztailean umeak zaintzeko. Tel. 628-330634 eta 630-434238. Gauzez deitu.
- Kamarera/o behar da udaran lan egiteko. Bidali curriculum-a: eibarkafe@gmail.com
- Ileapainzaile-ofiziala behar da Eibarko ileapaindegia batean. Esperientziarekin. Tel. 659-354164. vkgl@hotmail.com
- Neska euskalduna behar da garbiketarako lanak egiteko. 4 hilabeterako (ekaina, uztailea, abuztua eta iraila). Tel. 685-701034.
- Kamarera/o behar da Eibarko kafetegia batean. Bidali curriculum-a: tre@euskalnet.net

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Atzerriko hizkuntzan diplomatuak klase partikularrik ematen diete ekainean eta uztailean HH, LH eta DBHko ikasleei. Tel. 659-024427.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Kabia-oheta (0'80ko zabalerakoa) salgai, behean kajoi handiekin. Merke. Tel. 943-254175.
- Egongelarako kristalezko mahaia salgai. Merke. Tel. 943-254175.
- Ordenagailurako mahaia salgai. Merke. Tel. 943-254175.
- Hozkailu industrial berria salgai. 2'40x2'60. 4.000 euro. Tel. 688-678934.
- Gas bonbonadun 0'90eko sukalde salgai, labearekin. Baita 0'90eko ohe artikulatua ere. Berriak. Tel. 617-688311.
- Etxeko ogia egiteko tresna salgai. Behin erabiltza eta bi urteko bermarekin. 50 euro. Tel. 683-117345.
- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosi nitzuke. Tel. 688-624326.

6.4. Bestelakoak

- Behar ez duzun hori gustora hartuko gure alaba jaioberriarendako. Tel. 688-643716.



ix35 KOSMO Edizio Berezia
**Beste galaxia bateko
ekipamenduarekin
17.990€ tan**

Beti nahi izan duzun guztia ix35 batean, eta espero ez duzun prezioan. Azkar ibili, beste galaxia bateko ekipamendu honekin argiaren abiaduran desagertuko dira-eta:

- Bi zonaldeko girogailu automatikoa
- Bluetooth-a eta gurutzadura-kontrola, bolanteko aginteekin.
- 16"ko aleaziozko llantak
- Argi- eta aparkatzeko sentsoreak
- Berogailudun jarlekuak (aurrekoak eta atzekoak)
- "Stop & Go" motorra geratzeko eta martxan jartzeko sistema automatikoa

Eta, oraindik gehiago nahi baduzu, begiratu KOSMO Tecno eta KOSMO Style modeloak.



NEW THINKING.
NEW POSSIBILITIES.

OARSO CAR

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARRAKO

ELGOIBAR

943 74 14 80
Olaso Polig., 17.



Hyundai ix35 Gama
CO₂ Emisioak (gr/km): 139-182
Kontsumo mistoa (l/100 km): 5,3-6,9

ix35 1.6 GDI (135CV) BD 4x2 KOSMO KLASA-erako gomendatutako prezioa. Penintsulan eta Balearretan. Matrikulazioa, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, mantenimendu-eskaintza eta Gobernuaren PIVE 8 Plana barne. Eskaintza aplikagarria, gutxienez 60 hilabetetan eta 13.000€ko gutxieneko zenbatekoan Santander Consumer EFC S.A.-ren bidez finantzatuko duten bezero partikularrentzat. Finantza-entitatearen azterketa eta onarpenari lotutako finantziak. 2015/06/30era arte balioko du eskaintza honek. Erakutsitako modeloa: ix35 Kosmo Tecno. Mantenimendua ibilgailuaren finantziarioari lotuta. Begiratu eskaintza eta mantenimenduaren baldintza guztiak Hyundai kontzesionarioetako sare ofizialean edo hyundai.es helbidean.

EIBAR
Hipermerkatua

Laguntzarekin



EROSKI

zurekin

SANJUAN zoriontsuak!!!

UDA HONETAN ZATOZ **ZEN** EGITEIRA

eta nuke, baleki, zenekien...

*zitzaion
dezakezu
litzaidake*

*genekien
zetorren
naitzke*

AURKI EZAZU
ZURE BARNEKO OREKA,
EUSKARAREN BIDEZ

*eman izena
Gipuzkoako euskaltegietan*